


BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

305n. zenbakia

apirila 2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

GURASOEK EZ NABE MAITE

16 urte daukat eta institutuan nago estudiantzen. Danak aprobatu ditudaz aurten, baina ez dauste erosi ez motorrik ez telefono mobilik. Esan dauste ia nai dodan oporretara nonora joan, eta gainera nai nabe engainatu Inglatera joateko ingelesa ikastera. Baina nik naiago dot motorra eta telefono mobila. Lagun guztiak daukate eta txakur berderen konplejua artzen asi naz jadanik.

Ez dabe ulertzen motorra eta telefono mobila ez direla moda bat edo kapritxo bat, bizitzeko bear-bearrezkoak baino. Gure amagaitik izango balitz oraindik kuebetan egongo ginake. Pentsa zer esaten dauen: Telebisinorik ez egoanean be pozik bizi zirela.

Zelan esplikatu gurasoei gaur egun motorra eta telefono mobilik barik kalatxoriaren kaka baino gitxiago zarelako. Imajina parte zaarrean gagozela eta "Movidikea goazen" esaten dauela batek. Ba an joango dira danak motorean, eta ni oinez, amar bat minutu oinez. bakarrik. edozeinek ikusteko be... Klaro. neska banintz, lagunenek batek eroango ninduke atzean. baina ni croan baino naiago dabe bakarrik joan "no vaya a ser ke" bidean neskaren bat ikusi eta Movidikea nai dauen joan. Eta kantsatu egiten naz.

Ez da bakarrik trasportea. Beste gauza batzutarako be balio dau. Esate baterako, aspertuten bazara, beti emon zeinkez amalau huella Kalatrabako zubitik zubi barrira, kamina aldetik. kalanditik elizara atodaostia eta olantxe erria ezagutu. Gainera, neskaren bila bazoaz. ze motorra badaukazu neska daukazu. entradako tinbrea jo bearrik ez daukazu, iru-lau azeleroi emon eta listo, enteratu da.

Or ez dira amaitzen bentajak. Kotxearen aldean ona da motorra, ze kotxegaz ezin zara sartu oinezkoen lekuetan, tontodromoan, alamedan, plaiako morruan, eta motorraz bai. Asteburuetan, alde zaarra ixten dabenean, kotxerik ezin leike pasatu, baina motorrak bai, ze oinezko batek beste okupatzen dau, eta oinezkoa pixka bat al loro bada-bil ez dago peligrorik, kenduko da bidetik. Gainera, edonon aparka zeinke, ze udaletxeak barandilla azul batzuk ipini dauz kotxerik ez eta motorrak aparkatzeko, zamarak lagatzeko takilak be badaukazuz...

Eta gainera ez dira konturatzen motorra baneuke ari-nago ailegatuko nintzakela etxera afaltzera, edo pixka bat berandu banebil mobiletik deituko nieke trankil egoteko esaten. Dana bentajak.

Ez esan telefonoa derriQorrezkoa ez denik. Apartea joan barik, atzo bertan, plaiara joan ginan arratsaldean, eta marea goian egoanez jendez beteta egoan. Mikel berandu etorri zan ez zekianaz non gengoan, mobilla artu eta Gurutze Gorriko puestoaren aurretik Gorkaren mobilera deitu eban. Gorka gugaz egoan. eta Mikelek galdetu eutson ia non gengoan esatamete, eta Gorka alztatu zan eta eskuaz deitu eutson. Mikel zuzenean etorri zan. Ni egon banintzen Mikelen kasuan telefonorik ez daukadanez. tontuarenmodura ibiliko nintzan bueltaka plaiaren bila.

Zein kristogaz berba egingo dot nik emendik aurrera inguruko guztiak telefonotik berbetan badabilz?

Benetan, ez nabe maite

ANDER ZALAKAGAIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erosten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au eta croan bbk'ra eta ordaindu 20 C. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUZKADI'TIK MUNDURA BEGIRA

TAILANDI (2004-XII-31)

TAILANDI'ri SIAM esaten zitzaion guk jeografia ikasi genuanean. "T" "HAI" ango erderaz "yare" "libre" ornen da. "LAND", berriz, "lurra" da. Beraz Tailandi "GIZAKUME YAREEN LURRA" izango litzake.

Baiña naiz izenez yareak izan, ederki lotu ditu oiñaze gogorrez ango gizon-emakumeak, 2004'garren urteko eguberriotan, ingurr aietan gertatu dan ekaitz-tzar izugarriak.

Tailandi'tik kilometro batzuk egoaldera INDONESIArena dan SUMATRA izeneko ugarte luzca dago INDIK'ITXAS-ZABALEAN, eta or egon ornen da, ugarte orren ipar-sartaldeko itxas ertzetik urbill. urpean, ekaitzar ikaragarri orren sort-abia.

An itxaspeko lur legorraren altzoan, baiñan oso-oso lurpe-barru-sakonean aurkitzen ornen da kontinente-itxaszabalen azpitik amarren bat puska aunditan ludia zartzaturik daukaten zarrata aundi oietako bat.

B3 zarrata orren alde bateko lur-puskatzarra, zarrataz baliatru-ik, nongo eta nolako idartzarrak bultzata ez daki-gu, beste aldeko lur-puskaren gaiñera igo ornen da irriska, eta ori egitean gure irudimenak iruditu ere ez dezakean indartzarrak yaretu ornen ditu, ta indar oiek dardaraz jarri millaka kilometrotan inguruko lurrak, eta itxasoko urak goruntz jaurti berrogei ta amar metrotik gorako bagatzarrak sortuz.

Bagatzar oiek, izugarrizko arintasunez, inguruko lurraldeen Qaiñera jausi dira, ondarnena, eriotza. eta negarra zabalduz.

INDONESIA, SRI LANKA (lengo ZEILAND) eta TAILANDI izan dira gaitzik aundienak jaso dituzten Lateralriak. Aundiak bait dira lurralde aietan bizi diran jendetzak eta txit ugari, batez ere oraingo ontan bezala, opor-aro eta neguz an biltzen diran turistak, ango giro gozoaren, ango biziera merkearen... eta ango beste zerbaiten billa.

Osoa bait da an turisketa-zaleentzat milla gauzetarako askatasuna: ;baita ango neskatillekin larru jotzez asetzeko ere! Ainzuzen, sortua da "kirol" ortarako izen bereizi berria: "sex-tourism": "kunde-turitzza".

Eginkizun guzti oietan eredu da TAILANDI'ko erreiñua.

Aski Laterri ederra da Tailandi, 513-521 kilometro laukoi, 30 milloiren bat biztanlerekin. ESPANI bezain aundia baiñan lur emankorragokoa. Jende atsegiña ta alai tailandiarra. Erlizioz hudatarra. Tailandi izan da, turisketa-zale europarrak geienek azkeneko ekaitzar ontan bizia galdu duten Laterria, ots. Estadua: Geienak sueziarrak.

Sendoa bait da EUROPA'ko eskandinabiarrak -eta Qermaniarrak ere- TAILANDI'ekin lotzen dituan guraria.

¿Zer dala ta? Esan degu EUROPA'ko turislariak anego giro gozo ta bizitza merkeaz gaiñera beste zerbait ere billatzen dutela. Zer? Aragia. irakurle, aragia. Ango neska-gazteen aragi gordiñ leguna. Atsegiñenik zaien adiñeko emakume gazteen aragia, baiñan bereiziki ogei urtera insten ez diran neskatillena.

Lunez oso aberatsa da Tailandi baiñan beste errialde aietan bezala erria oso era txiroan bizi da. Ez dira ezereen jabe. la-ia, berea duten aberastasun bakarra, bere alabak dira. Neska politik eta txukunak benetan, alaiak, maitagarriak.

Ez eizkizu, irakurle, guraso aiek errez gaitzetsi. An ere, emen bezala, sabela betetzeko dirua bear da ta, alaben gorputza turislari aberatsei salduz lortzen duten dirutik bizi dira.

Gaiñera, jende aiek ez dira kristauak, eta kristautasunetik at. emakumezkoen soiñaren garbitasunak ez du kistaontzat duan garrantzirik.

Neska gazte tailandiarrentzat. neskustasunak, ots, birjintasunak, ez du gure neskentzat duan. -edo beintzat oraiñ arte izan duan-, baliorik. Ezaguna dut, Tailandi'n luzaro mixiolari egon dan lekaime bat. Arabarra. KANPETXU'ko GURUTZE DONE'koa.

"Ez pentsa. arren. -esan oi izan dit-. neska gaixo aiek gaiztoak diranik. Erri batetik edo bestetik egunero joan oi dira, pardeltxo bat eskuetan dutela, turistegietara. Txukun jardun oi dute beren bezero aberatsekin, eta txintxo-txintxo bidaltzen dute beren etxera irabazten duten dirua".

Neska oietatik ere asko ta asko il dira beren bezeroekin batera bagatzarrek irentsita. Jainkoak artu bitza bere zeruan. Oiek eta oien bezero aberats astokilloak, naiz auek alditxo eder batez purgatorioan egon ostean.

LATIEGI TA ERASO'tar BIXENTE

DIAMANTEAK

1866n. urtean ume batek Oranje ibaiaren ertzean dir-dir egiten eban zerbait ikusi eban eta etxera croan. Diamantea zan. Ego-Afrika'n aurkitutako lenengoa. Ortik etorri dira Afrika'ra aberastasun izugarriak.

Soloa lantzen ebillan baserritar batek diamantezko osiña aurkitu eban. Laster asi zan mundu guztiko jentea ara diamante-billa joaten.

Kimberlei osiña gaur agortuta dago, balita 1500 m. zabal eta 350 sakon eukazan. Inguruan burdin-arizko sarea gizonak eta abereak ara ez jausteko.

Gaur lurraren barruan billatzen dira diamanteak: 18.000 tone lur aztertu bear dira kilo-erdi diamante aurkitzeko. Lana afrikatarrak egiten dabe eta beti bertan egon bear dabe, lo be bai, eta urtetan dabenean X tanke-rako dizdikazak aztertzen dabez, gorputzean errez diamanteak eskuratzen diralako eta aberastasun ikaragarria dira.

Langilleak ondo irabazten dabe eta ezin dabe gastáu. Meatoki barria aurkitzen ba'dozu, aberastu zara!

OLAZAR"tar MARTIN'ek

AMURRIO'N BA'DA OROITARRI BAT...

GALINDEZ gogoratuz eta arek errimintsuki idealizatu-tako Amurrio oroigarrituan izanberri nauzute. Zerk bultz egin ote nauen esango didazu. Ba, bi liburu izan ditut eragille. Alberto Elosegiren bat. Korapilloak arilduz, jator, arnas aberkoiz eta atseginki errun –idatzitakoa, aspalditxo ateraberritan irakurria. Ta bigarrena, eleberri eran, politikaren ainbat "illunaldik" ikertuz eta argituz, Manuel Vazquez Montalban'ek Galindez'en irudia ardatz artuz, garraski baiñan zirtillutik aria artuz, nundik norakoak ongi zekialarik idatzitakoa. drama lanaz, oraintsu nik irakurria.

Bi liburu auek gai ematen didate naizentxo aldetik lerro batzuk zirriborrotzeari ekiteko, gizon abertzale aundi arek merezi du-ta.

Gure Erria'ren emaitz gogokoiak.– Giza-katean ezur-mamiz baiño espirituz osaturik eta bizi-izandako euskaldun abertzaleak bai ugariak Euskalerrri kuttun ontan. Ugariegia diralako. au tamalgarrfl ezin bat-banatu eta abizen-izenez gogora ekarri. Tarteka bederen eta noizbeinka ola-lakoren bat eredu-edo paperera ekartzeak onik egiten ez digula ezin esan. gogorrean eraildakoak batez ere eta geroztik aaztutakoak, gu bizidunon oroimenetik igaro-eraziz. zein gauza uts ;eran pentsarazi bai dezaigukete. Eta nere buruari auxe esan oi diot: bere txikian, ainbeste biotzaundiko idealista daukan Erria. jazarketarik ankerrena jasan bear izanarren, ezin il eta suntsitu daiteke.

Olerkari-animaz jantzia ta leberra.– Galindez'tar Jesus, il-zerrenda ortako martiri abertzale punterengo bat dugu. Eáitez, ideiaz. lanez, gizaundi benetan, erraldoi. Bizi-arrazoi osoa aberriaren pizkunde-serbitzuan jarrita zeukana.

Ez nuan nik ezagutu. Baiñan aldiune artan, arek idatzitako lanak eskuetarutzen zitzaizkidanean, ta ba'zuan idaz-ezpala!, erri-berotasunez eta giza-balorez anpaturik zetoztela antz eman nion ezkeroztik, irrikaz beterik jaso ta irakurri oi nituan, ondoraño xurgatu ta ausnartuz ain biziro eman oi zituan ideia garden, aratz eta zoragarriak.

Izlauz ezezik a ze nolako ganoraz eta xarmaz iruin oi zituan bertsoak ere. Olerki-gogoz ornitua zetorrenik nork uka dakiguka? Gure Erria'ri ta Askatasunari biotz betean bai kanta ederrak aren biotz-lumatik ixuriak.

"Askatasun joranez naiz bizi
ta aren billa
–jainkoen doai-
enarak antzera noa
giltzapetik igesi".

Edo-ta beste poema luzexka ua "Muiñoan zai dauzkat" arbasoen oroiz eta aberri-min aundiz blai.

"Eraman nazazute,
eraman Amurrio'ra
nekaturik bai nago..."

Erderaz oretua au ere, beste guztiak bezela, benetako penaz, ez bait-zekien euskeraz, jardutez beintzat.

Galindez'en bizitzune batzuk.– Gurasoen egotezko bizilekuan. Madrill'en alegia. seaska-uri izanarren, Amurriotar jatonikoa _enduan. Aiala lurralde jarei izandakoaren zuaizt-kimu. Gaztetxo zalarik, ernemin xamur. odolaren deiari jarraiki, Zaraobe'n (antzinatean egin oi ziran lurbertakoen batzar-tokian) eta Galindez'tarren bizi-inguru-nea ibilliaren ibilliz ongi ezagutu ta areago maiturik, abertzale gartsu biurtu zitzaigun.

Madrill'en koskondu eta zuzentza-ikaketak egin bitartean. euskal gaien agertzaille ta izlari eratsu izan genduan. Ta gero gerokoak: galerazia zegoalako pentsatzerik etzegoen Kokoerri artatik iges-egin bearrak, guda-ordu latzen ondorengo erbestea... Gizaldi onen erditsuan. Euskadi'ko Jaurilaritza'ren ordezkari New York'en zalarik, atzapar luzeko Trujillo diktadore odolbeltzak, zaunka aginkorrez, eriotzera epaitu zuan, auzibidez ez baiño bere agintalmentsuz. Eriotz-bide onen xeetasunik ez dugu ezagutzen. Ez du iñork ezagutzen. Pentsatzeak berak otzikarak artzen gaitu. Ta 1956'garren urtean. epailla'k 12'an (orain berrogei urte) begiz galdu zitzaigun betiko.

Galindez'en sorginkume etsaiak, askatasunaren arerio deabrukoiak, angoak eta emengoak, zimaurrez eta iraiñez mukurutu zuguten euskaldun jator onen aienatzea, birauz eta gorotzez onen oroimena.

Republika Dominikana'n Diplomazi-eskolan irakasle izandako gure aberkide onek, lurralde berotsu aietan giza-kari bizi-erazten zitzaion nekebidea ezagutuz eta ezin-eramanik. Estatu Batuetara aldegin eta liburu saltzaille bat idazteari ekin zion: "La era de Trujillo". Doitasun aundiz eiotako tesis doktoral onek erakarri zion Galindez'i ez-eza, una zaigun bereazkena, ez dakigun nolako sen aundiz berberak oso bertatik aztiatu ta zomatzen zuana.

Galindez'en espirituaren erraiñua.– Ona erren iru esakunetan mamiturik eta erraiñaturik askatasun-martiri aren gogo:

1.—Euzkadi, nere aberria, menperaturik datzan bitartean, menperaturik datzan bitartean, menperatzaillerean aurkako burrukari jarraituko diot. Auxe Aberri-gizona!

2.—Askatasunik ez dan bitartean garraxika eskatuko dut. Onatx askatasun-gizona.

3.—Zentzugabea izaten jarraitzeko Jainkoak bemaiz sen bizia eriotz-egunerarte.

Galindez'en erotasun goitar ori nai genduke danok gure bitotzean itsasirik ikusi.

Aren adimen-lanak.— Galindez'en bizitzuneak utzi zizkigun idazlan eta liburuetan nabari dira. Ni gaztetxo nintzalarik ezagutu nuan liburuxka eta eragin aundiko izan zitzaidana "Lan Juntas Vascas" izan zan, ua ikasle zalarik, irudimen txairoz, 1935'garren urtean emandako itzaldi dezteratu-mamitsu baten ondorioa. Urren, beste titulu askotxo etorri ziran: "Los vascos en el Madrid sitiado",

"La tierra de Ayala y su fuero", "Los vascos en el derecho internacional", "El Derecho Vasco", "Euzkadi, el País de los vascos dinámicos". Eta artikulu mamitsuetan abar luzca. Lan guzi auetan ageri zaigu euskal abendaren ikerlaria, edeslaria, jurista, elerti-zalea, olerkaria, irakasle ta izparlaria.

Eta bukatzeko. Onatx liburukoan idatzirik utzi zizkigun itz gogoangarri ta bikaiñak: "Euskaldun eta kristau naizela aitortzen dut. Amurrio'n eortzi nazatela... Jainkoak bere altzoan ar nazala.

Gizajoa! Euskal mendiekiko orio-miñez bizi baiñan Amurrio'k ezin izan du bere gorputzik jaso... Eta ori, New York'eko askatasunaren irudiaren gonapean babesturik aurkitzen zalakoan!

OSINTXU'k

AFRIKA 10: IPARRALDEK® EREMUA

Atlantiko itxasotik Itxas Gorri'ra bitartean dago Sahara, millak km.'ko eremua: Aize, egarri bizibako lekua, baiña bizidun arrigarriz betea.

España osoaren besteko arloan, dunak eta area baiño ez dagoz, baiña batzutan arri ederrez jazten da eta mendixkak be ba-ditu.

Nomadak ille batzutan curen auntzak eta ardiak zaintzen dabez olako mendi orlegietan.

Burutzik doan gizakia minutu batzutan ilgo litzake bero ikagarritzko egunetan, gabaz 50°ko beroa galdu-ondoren, edur-zulo bateko otza egingo dau.

Urte osoak igaroten dira euri barik, bedarrak eta zugatzak legortu egiten dira.


Uste barik etorten da udabarri polita eta lurra buztin biurtzen da.

Siroko aizea da bildurgarria, legorra ta beroa, sarritan eguzki kizkalgarriagaz batera eta eguzkia oztentzen danean arezko zikloi bildurgarria sortzen da.

Millak urteak dirala dana zan basoa. Eta orain be lurpeko urak onuneak edo oasisak sortzen dauz.

Ibilteko erarik onena dormedarotatik dator.

OLAZAR'tar MARTIN'ek



FALTA DIRAN ZENBAKIAK JAKITEKO, JARRAITU BEAR DOZUZ GEZIAK, ETA OBOETAN DAGOZAN BATUKETAK ETA KENKETAK, EGIN BEAR.

KARMELE

~

TAJON GOTZAINA, FROYA TA EUSKALDUNAK (VII GIZALDIAN)

Bixente Latiegi'ren "Eleiz Edesti Sorta"ko bederatziburuetatik azkenengoa "Euskal kristautasunaren Sendokuntza" bigarrenaz irakurten nabil.

Jazokizun arrigarri bat irakurri dot eta onen baria emon nai dautset irakurleai idaz-lan onetan.

Ikusi aurretiaz, nai izan ezker, 395 orrialdean Tajon gotzainaren agiria lateraz, Kiriko Bartzelona'ko gotzainari egindako eskutitz baten eta 154n. orrialdean gure Bixente'ren azterketa sakona, zurra eta azterbidekoa.

AGIRI-ZATIAREN ITZULPENA

"Ba daki berorrek zelako aldia izan zan, suge okertu batek bere ago pozoitutik batzuren buruetan azi txar lez, zoragarria erein ebenekoa..

"Orduan iruzurtu ebazan gogo okerbideratuak artu bear eben bide zuzenetik maltzurkeriz alboratzeko. Aldi ori izan zan arako Froia, gizon atsitu zoroak aginpidea oker-bidez eskuratuz eta bere ilketarako laguntzaille okerrak artuz ainbesterañño ausartu zan aldikoa: Txindasbinto errege zuzen eta jainko-otsein aundiaren aurka maltzurkeriz matxinada sortu eta alegin arroagaz kristiñauen aberria indarkeriz menperatzeko alegina egin ebaneakoa.

"Ekintza ilgarri ori zala-ta euskaldunen erri basatia Auñamendi-ganetik jatzi, iberoen aberrira sartu eta askotariko arrapaketa zapaldu eban.

"Au samintasuna! Zori txar orren aunditasunak ez dau izten zelakoa izan zan esateko asmoa beteten! Baiña, azkenean, gogoa ikaratzen dauan dardara alboratuz, gauzea agertu egin bear da.

"Kristiñau askoren odol errubakoa isuri da. Batzuk aiztokadaz eriotzarako zaurituak izan dira, beste batzuk izkillu jaurtikiakaz eta asko beste izkillu batzukaz zaurituak, baituta croan dabez kopuru aundiak eta arrapakin ugariak arrapatu.

"Guda zoritxarrekoa Jainkoaren eleizetara be sartu zan eta altara santuak apurtu dabez, abade askori samea ebagi dautsee eta illen gorpuak txakurren naiz egazti arrapakinñen jangai geratu dira.

"78n. salmoak zeaztuten dauana oso-osoan bete zan alako zoritxarrean".

TAJON NOR ZAN

Lekaidetxe bateko abata zala egin eben Salduba edo Zaragoza'ko gotzain gure Tajon.

Izaeraz asarrekoia eta zuzen-zalea agertzen da Bartzelona'ko gotzainari egin eutsozan eskutitzetan. Eleiz nai erri-jakintzan oso landua zan, liburu santuak azaltzen be trebea eta arazoak aztertzen zorrotza.

Antza dagoenez, azterketarako zorrotzasun ori ez eban artu gure asabak zakartzetakoan eta bere asarrekoitasuna bai arto eban arein aurka.

Eta ez gaitu arritzen jokabide orrek, gure asaba areek bizigotai emondako jipoia izugarria izan zan-eta.

Azkenean Froia garaitua eta ezpataz erailla izan zan, baiña Rezesbinto errege irabazlea aundikiro sartu zan Toledo'ko VIII kontziliara. Orduan be "Domuit Baskones" oi u egingo eben pozez.

EUSKALDUNEN APENTZA IZAN ZAN

Euskaldunak beti bisigotakaz egoaldean eta frankiarrakaz iparraldean burrukan ibilli ziran.

Egoaldean gudaldi aundi bat izan eta euskaldunak lurralde batzuk galdu-ondoren izan zan Tajon gotzainak zeaztuten dauan ori. Ez zan izan erlejiño-arazoa, gudako ekiñaldia eta lurralde galduak eskuratzeko ekintza baiño. Bai bizigotak eta bai euskaldunak kristiñauak ziran. Orrellan izan ez ba'litz zalantza barik esango eban Tajon'ek, poz aundiz, baiña ez diño euskaldun areik jentillak ziranik.

TAJON"EN IDAZKIARI OARRAK

1^a.- Idazkia 68n. salmoak diñoana azalduz egiña da eta salmo au dan lez idazkia be "elejia" deritxon idaz-tankekarakoa. Orregaitik edestilariak arretaz irakurri bear dau, elertia alboratuta.

2^a.- _Ez da aitzu bear Tajon asarrekoia dala. Ori argi agertzen da berak Braulio gotzainari egindako idazkietan. Ori be ez dau aitzu bear edestillariak.

3^a.- Kontuan arto bisigoten artean erlejiñoak eta politikeak euken batasuna, Toledo'ko Kontzilioen giroan.

4^a.- Guda-giroan euskaldunak kristiñau asko il ebezan, baiña ez gудatik kanpoan. Esango eban Tajon'ek!

5^a.- Tajon'ek ez dau edesten ikusi ebana. Elertia egiten dabil, eleji-arloan.

6^a.- Egia ete da abadeak il eta altarak apurtu ebezala? Esaldi orreik ba-dauke iperbole-antza, elerti-giro aretan.

7^a.- Egia etc da katigu asko croan ebezala? Ezetz dirudi. Katiguak edo baituak croan baiño askoz oba eben euskaldunak katiguak iltea. Katiguak eragozpen jakezan, besterik ez.

8^a.- Egia etc da aberastasun asko eskuratu ebela? Orrek ba-dauko egi-antza.

9^a.- Froia'k ez eban jokatu kristiñauen aurka. Gaiñera bisigoten laguntzaillea zan. Ez eban besterik bear, euskaldunakaz bat egin eta galdutako lurak eskuratzea baiño.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

SALMOAK

69N JAUNA IZAN ZAN
ZIGORTUA

1

Ezagaturik Pilatos onek
Judutarrak nai zuena,
asmatu zuean "gogor zigortu",
bazan faltak zituena.
Arritzen zeuken judutar aiek
erruki bat etzuen,
etsaiak artuak zeudelako
zan "il zazu" ziotena.

2

Kendu zioten jantzi zuria
gogortasunez elduta,
azpian zeuzkan kate ta sokak
lendik baratzan lotuta.
Eskumutur ta besotan zeuzkan
llagak gogor berrituta,
agindu zien maldizioka:
"Jarri erropak kenduta".

3

Jesusek zeukan tunika on bat
Amak Ejiton jantzia,
beti garbia eta berekin

gorputz-tamanan azia.
Bere kapa zan lotu zuenen
kenduta bertan utzia.
Asi zan kentzen al zuan eran,
zan eldu ta erantzia.

4

Asi ziraden Jauna zigortzen
lenengo bi borroruak,
larruzko zigor loriak eta
gogorrak biurrituak.
Ezin esan dan gogortasunez,
nekatu arte besuak.
ipiñi zuen golpez beztuta
pilletan odol bilduak.

5

Ondorenean aldatu ziran
beste bi jauna jotzeko,
korrea larruzko zigorrak
alegiñak emateko.
Auen golpeak izan ziran
gorputz dana odolezeko
baita izan zan beren erropa
eta lurra bustitzeko.

6

Agindu zazu umildu dedin
jartzea erregen dana".
Pilatosek e sententzi ori
zan kontsentitu zuana.

3

Eraman zuen juez- lekura
burlaz errege jartzeko,
erantzi zuen gogor arrabiz
min geiago supritzeko.
Espaldan zeuzkan ezurrak bistan
etzeuden errukitzeko,
purpura zikin bat jantzi zien
danak burla egiteko.

4

Bere buruan jarri zioten
arantza pilla bilduta,

Aldatu ziran irugarrenak
soka larru gogorrakin,
Jesus jotzera erruki gabe
amorru aundienakin
Auen golpeak saltatu ziran
bere aragi-puskakin,
ezurrak zabal agertzera
aragia kenduakin.

7

Edertasuna itxusitzeko
jo zioten arpegian,
bere eskuak ta oñak ere
jo zizkaten indarrian
Auekin Jauna ipiñi zuen
oiñaze izugarrian,
odola txorroz jua zan lurrera
ala jo ziotenian.

8

Jauna llagatu zuen odolak
begiak itxutzerañño,
txistu zikiñak bota zizkaten
Jaunari arpegirañño.
Zigorkak ziran bost milla eta
cunda amabosterañño,
olako gizon miñez beterik
ez da izandu egundaiñño.

seto de juncos deitzen zioten
latzenak aukeratuta.
Punta zorrotzak eta gogorrak
sartu zizken estututa,
askok, kaskua zulatuz, jarri
belarriak zulatuta.

5

Beste arantza batzuek ziran
begitarañño sartuak,
onela ziran arantza auek
tormento aundiñekuak.
Eskuan jarri kaiñabera bat
emateko aginduak,
kapa bat jarri aren espaldan
ziran jantzi burlazkuak.

70N JAUNA IZAN ZAN
ARANTZAZ KOROATUA

1

Jaunari eman zizken golpeak
bere Amak sentituta,
gelditua zan gorputz- animan
oso desfiguratuta.
bere aingeru goardakoak
zeuzkala errukituta,
Joan santuak eta Mariak
kostata ezagutua.

2

Erruki gabe eraman zuen
beriz Pilatosengana,
esanaz: "Au da gure errege
izatea nai duana".

OTOITZA

6

Egite auek ziran arrabiz
etsiaiak ispiratuak,
karidade ta pazientzia
zeuzkan neurrigabekuak.
Etzuan bere aua iriki
Jaungoiko egiazkuak,
eta etziran jotzen aspertzen
etsaiak artutakuak.

71N JAUNAREN SENTENTZIA ILTZEKO

1

Pilatos laga zan bentzitzen
beren alde biurtzeko,
eta bizitzaren Egillea
agindu zuan iltzeko.
Judutarrak pozez eta bullan
erten ziran zabaltzeko,
Ama Birjiñan biotzarentzat
zan kutxillua sartzeko.

2

Eraman zuen beste lekura
ipintzeko aldatuta,
arpegiz ezin ezagutu zan,
dana desfiguratuta.
Joka ta odol, arantzaz, txistuz,
zikindu eta aulduta;
tunika jantzi zien juan zedin
jendeak ezagututa.

3

Ama Birjiña ezin esan dan
miñak arturik zeguan,
baiñan Jaunari jarraitutzeko
Aitak indartutzen zuan.

7

Ama Birjiñan otoitz beroa
Pilatosek sentituta,
ta damutu zan jarri zalako
ala berak aginduta.
Bere biotza jentilla baiñan
jarri zan errukituta,
libratu naia sortu zitzaion
Erregiñak argituta.

Juanen eta Marian alde
eskatu zuan orduan,
eta Birjiñan otoitzakgatik
Aitak indartu zituan.

4

Ara nola zan Jesus iltzeko
sententziatu zuana:
"Ni Pontzio Pilato naizenak,
presidente nagoana,
Galilia ta Jerusalemen
agintea daukatana,
ematen det sententzi iltzeko
Jesus Nazareter dana.

5

Gizon au da legean kontrako
ta Zesarren kontrakoa,
erabaki det izan dedilla
gurutzean ildakoa,
gaiztoak iltzen dira bezela
iltzekin jositakoa.
Nai zuan izan Jainko Semea
errege Israelkoa.

6

Amenazatu zitualako
Jerusalen Eleizakin,

8

Judutar aiek: "Gurutzean il"
eskatzen ziotenean,
Erantzun zien: "Egin eurokoi",
bizirik laga naiean.
"Onek iltzea merezia du
daukagun eran legean:
Jainkoan seme dala dio ta
il bear da gurutzean."

Etzuan uzten Zesar pagatzen
ta atrebimentuakin;
sartu zalako Jerusalemen
trunfon erramuakin,
agintzen diot Kornelio orri
eramateko lotsakin

7

Agintzen det ondasunak eta
bizitza ez galdutzeko,
ez dedilla iñor atrebitu
agindu au aldatzeko.
Au da urtea mundua sortu
zanetikan kontatzeko:
bost milla eta berreun urte a
ogeita amairu jartzeko.

8

Martxuan ogeitabostgarrena
eguna degu gaurkuan,
Pontzio Pilatu juez danak
agintzen duan lekuan".
Erromatarra zan da latiñez
eskuz eskribitu zuan,
egun au zala kriatua zan
lenengo Adan munduan

ALDALUR'tar JUSTIÑE
(KLARATARRA) GASTEIZ

BAZKAL ONDOAN

Bazkal ondoan, mai inguruan,
gizonak, au da giroa,
zerk sortuten dau zabaltasuna
itzez beterik agoa,
gorputza bera gora goraka
ormak artu alakoa,
biotzak barriz maitetasunaz
poztuten dabe gogo.

Gure artean, emen daukagu
bear dogun kantaria,
luzaroetan, nozik beñean
agertuten dan izarra,
gazte gazterik gizontasunez
zaindu zure etorria,
Euskalerriak izan dagian
urrezko gizon argia.

Agur aundi bat lagun gutioi
batzar onen izenian,
egiz da eder, egiz da aundi,
ospetasuna lurrian,
ainbeste jende pozez beterik
alkartasun onenian,
aupa aizkide zoragarriak
bizitzako jai aundian

PAULIN

LENENGO PARROKI EUSKALDUNA

"Lugdunum Conbenarum urian egindako atxurketak eraiketa-lan zarrago baten gainean agertu dauskue, zer eta Frantzi 'ko kristau-basilikarik zaarrena".

Galietaiko eleizarik zaarrena euskalerrian!

Baiña ba dauko zer esan geiagorik H.Leclercq ikerlari ezagunak: IV mendean lenengo erdiko eleiz areri basilika esaten dautso izen egokia erabilliz.

Basilika orren aztarnak, abside baten eta orma ta zutabe-ondakiñak 1913n. urtean agertu ei ziran eta bere barruan 14 sarkofago edo arrizko zerraldo, artzurizkoak oneik, danak izengabeak bat izan ezik. Onek idazki bat eta krismoi txit eder bat ei daroaz. (Alboan doa krismoi orren irudia.)

H.Leclercq'ek diñonez 1913n. urtean azterketak zuzendu ebazan M.Dieulafoy'ren ustez, "krismoi ori baliosuenetariko bat ei da eta ezagutzen diran guztien artean dotoreena.

IV mendearen lenengo erdikoa da krismoia. Pozgarri jaku krismoirik ederrenetariko bat Euskalerrian egotea.

Baiña milla aldiz pozgarriagoa jaku oraindiño Leclercq esatera joakun au:

"Patroklo abadea 347n. urtean Lugdunin Combenarum'en agertzen jakun ezkerro, ba-ziran an kristiñauak, bazan eleiz bat, bazan bataitegi bat, bazan komunitate bat. Ez litzake, ba, ausardia izango, orain urte gitxi ikertutako basilika ori leenagoko otoitegi, martirenen baten omenezko eleizatxu edo basilika baten gainean eraikia izan zala uste izatea. Basilika ori zelakoa eta nozkoa zan jakinaiian alegintzea, alperrekoa gauzea izango litzaiagu, berak diñoan lez,"347n. urtean Lugdunum Conbenarum'en Patroklo abadea agertzen dan ezkerro, an sinistedunak,eleizea, bateo-lekua eta alkarte be izango ziran.Basilika orrek urte batzuk aurrerago beste basikila edo otoitz-leku edo martiri-leku edo basilika zarrago bat eskatzen dauala, ez litzake ametsa izango..."

Gutzat asko balio dau azpian eleiza zarrago bat egote orrek. Ori orrelan izan ezkerro, Patroklo'ren illerria basilika aren illobitegian izan zan aurkitua ta illarri ori 347n. urtekoa izanik, uste izatekoa da Basilika orrek, zarra ez ba'zan be, 47 urte beintzat izango ebazala eta mendearen asieran,300n. urte inguruan egiña izango zala.

Baiña basilika ori urte batzuk beranduagokoa izanda be, esaterako 317 edo 327n. urtekoa, bera baiño lenagoko beste otoitegi edo eleizatxua III mendekoa zala. Irugarren mendekoa! Eun urte geroagokoak dira Martin Deunaren misio-lanak.

Patroklo dogu ba, izenez ezagutzen dogun Gali guztietako lenengo parrokoa, IV mendearen lenengo erdian euskaldunen artean

MUNGIALDEKO PARROKIAK NOZKOAK?



Astiro aztertu dot Mungialdeko parrokiak, eta Bizkai guztikoak uste dot, noz sortuak diran. Arazoa ez da Patroklo'ren bidekoa.

Mungialdeko eleizea milla urtean, 500-1500 bitarteko urteetan baseleiza edo ermitetan bizi izan zan.

Zelan etorri zan fedea gure artera?

Zalantza barik lekaideen bidez. Orregaitik esaten jake auzoetako eleizatxu onei "ermita" izena, "eremita" eta lekaide batek sortuak diralako, eta orregaitik esaten jaku guri antxiñatik "abadea" izena. Abadea lekaideen burua da..

"Milian" izena daroan liburuan idatzi dodan lez, lekaideak izan ziran gure Barri Ona ekarri euskuenak. Nondik etorri ziran? Bear ba'da Trebiño'ko Kapadozia euskaldunetik edo naiago ba'da Kobiaran'ko kobetatik. Nik Zigoitia'ko Akosta edo Okoista'n egoan Bingen Deunaren monastegiari emoten dautsat garrantzi aundia, baita Vivere Araba'ko gotzaiñak Okoistako abata eban anaiairi egin eutsan emoitari. Andik etorri zala diñok gure lekaide ebanjelizatzaillera,nik ezarritako Milian izena daroana. (Arrigarria:Vivere ori Asturias'tarra zan jatorriz).

Milian'ek iru edo lau etxe alkarregandik urtean aurkitzen ebazanean, Barri Ona iragarten eutsen eta eleizatxu bat egiteko egindu. Eleizatxu orretan edo alboan lurperatuko ebezan euren illak eta antxe alkartu otoiz egiteko.

Arduradun bat ipinten eban eleizatxu edo ermita orretan, al izan ezkerro eremutar edo lekaide bat, eta ezin zanean,"serora" bat.

Serora oneik izan ziran 1000 urtetan fedea zaindu eban. Gero Eleizeak, esker txarrez eta euskal agintarien eritxien aurka, kendu egin ebazan, emakumeak izanik abade-antza eukelako. Orregaitik dagoz ainbeste baseleiza etxe baten barruan, ori izango zan "serore-etxea".

Baiña 1500n. urte ingururako baseleiza batzuk ospetsu biurtu ziran, besteak baiño ospetsuago eta Eleiza aundiagoa egin eben, inguruko kristiñau guztiak batzeko. Ortxe sortu ziran benetako parrokiak. Banaka batzuk gotikuak dira eta,ordu, 200 bat urte zarragoak.

Baiña emen Patroklo'ren bidea barik aren aurkakoa da. A gotzain baten menpean egoan abadea zan eta parrokia gotzaiñak sortua. Emen eleizatxuak misiolariak eurak sortzen dabez eta gero ortik datoz parrokiak.

Gauza aztergarriak, benetan gure fedearen edestian!

OLAZAR'tar Martin'ek.
(Lenengo zatia, Bixente Latiegi'ren liburutik artua da).

AZKEN ARTZAREN AZKEN ATSA

(2n. saria)

Pasa dan neguan jaio nintzan seme'lez neu bakarrik nagoen famili baten magalean. Aita ez dot ezagutu, baina oso indartsua eta andia dala esaten dabe danak. Ama osterona ona eta atsegina da ni bezalako artz txikitxo bat egunero ia iru urtez mantendu bear dauala kontutan artuaz.

Ni jaio naizen negua oso gogorra izan da, aurki kobatik oi baino beranduaQo urten dogu edurrak urteera sarra-tu deuskulako.

Leenengo ileatan esnea baino ez dot edaten izan, oraintsu asi naz gaztainak. perretxikoak eta lur azpian bizi diran animalia bigun eta gozo batzuk jaten.

Bizi naizen lurraldea zoragarria da, baso zabalak eda-tzen dira, erreka garden eta ur bizikoak tarteko dirala. Mendi tontorrean aitzak ikusten dodaz, baina oraindino ez naz eldu bertara.

Amatxuk oraintsu esan deust arreba bat edo anaitxo bat izango nebalakoan egoala, baina; "Jainkoari eskerrak zelako negua egin dauen kontutan artuta bakarra jaio zara eta zelan edo alan atarako dogu aurrera bizitza", ori da beintzat amak dinoana.

Ileak konturatu be egin barik pasetan jataz. Pasa dan astean esaterako. arrainak arrantzan joan ginan ama eta biok beko errekarra. Arrantzan egitea ez da bape erraza, amatxuk leenengokoan arrapetan ditu arrain andiak, baina nire erpa txikiekaz arraina ikutu orduko doa iesean errekan gora. Azkenean bat arrapatu neban, oso txikia, baina nik arrapatutako izokina zala kontutan artuta, gozo baten jan neban, buru eta guzti.

Eskerrak amatxok geiago arrapatu zituala, ase ezinezko Qosea asetzeko bainik bein.

Beste baten, ordurarte inoiz ikusi gabeko egaz egiten daben animalitxo batzuen etxera joan áinan, barruan egoan gauza gozo eta itsaskor bat arrapatzeko asmotan. Kontuz ibili-bearra egoan. askoren artean artz andi bat ere menperatzeko gai ziralako, dundurria sortuten eben egazti txiki aiek. Denboreagaz jakin neban erleak zirala eta goiz aretan artu genduana, ez-tia zala. Egun aretan be, tripako minakin lokartu nintzan larregi jan ostean.

Denborea aurrera joiala, amak gauza garrantzitsu bat azaldu eustan udabarriko egurdate batean.

– Semetxo. artzak garenez gero, beti ezin gintekez leku batean egon. Mugitu egin bear gara bi arrazoi astu-negaitik. Bata: janaria urrituz doan lurraldeetatik alde egi-tera beartuta gagoz, arik eta janaria dagoen beste lurralde bat aurkitu arte. Bigarren arrazoia zera da, beste artz ar bat urbil dago eta berak ikusten bazaitu min artu zeinke.

Nik orduan; – baina zQ ama?, ni ondo porte banaz...

Amak: –Badakit seina, baina naturak olan jarri ditu artza-rentzako legeak eta guk onartu bearra dogu, gura edo ez.

Bost egun pasatu ziran, ibili eta ibili geratu barik. Goseak nengoanean edo oso nekatuta sentitzen nintza-nean geratzen ginan soilik, gero andik gutxira barriro asteko gure ibilaldi neketsua.

Eldu ginan amari gustetan jakon leku batetara. Ama urtero egoten zan eta bertan seguru gagozala azaldu eus-tan. Alatan be, bere ondotik ez aldentzeko inoiz, zeozer txarra pasa parik eskatu eustan arren eta arren.

Tximeleten atzetik ibiltzea asko gustetan jat. Gora eta bera doaz egan eginaz, kolore biziekaz, ez-oizko eragina sortuaz nire begi txikien aurrean. Gauza jakina da, ez dodazela arrapetan, baina ez alegintzen ez nazelako.

Arratsaldea amaituz joiala, egun aretan, sorgin-mit-xien atzetik eta lorak usaintzen galdu egin nintzan. Ez neban jakin lo egiten neban lekura itzultzen, orduan izua nagusitu zan leenengokoz nire erraietan.

Negarrez asi nintzan, asieran asperentxoak eginaz, baina azkeneruntz zotinka amaitu neban. Leku batean geldi geratu-bearrean, ibili eta ibili asi nintzan, areik eta gaua egin arte.

Aretz zaar baten enborra artu buru azpian eta bigun egoan leku leorrean lo jausi nintzan, neukozan indar apu-rrak elde egin ostean.

Urrengo goizean bidexidor batetik noiala amaren orroa entzun neban urrunetik. Entzun eta jarraian emon neutson karradereari. A zan poza! Amagaz aurkitu nintza-nean, biotzak be ia lekutik urten eustan.

Amatxok orduan: – Laztana, oso kexkatuta egon naiz zeozer txarra gertatu jatzulakoan. Gainera zuk ez dakizun arazo baten barri emon bear deusut. Geure moduan zutu-nik dabilen areno zuur eta maltzur bat daukogu, gu eurok baino indartsuagoak gara, baina sua puntatik botaten daben makila batzuk daukiez eta munduko artzik andiena ilteko gai dira urrunetik. Ez da leenengokoz gertatzen dan egoera bat, zoritxarrez gutariko asko akatu dabez era beretsuan. Taz zure aitona izan zan euron eskuetan jausi zan azkena.

Ez gara askorik geratzen eta tentuz ibili-bearra dauko-gu bizi iraupena ziurtatzeko.

Ni zur eta lur nengoan. Barruan izua eta jakin-mina naastean nabaritzen nebazan. Alde batetik animalia arraro ori ikusi eta ezagutzeko gogoia neukan, baina beste alde batetik, beldur nintzan zer gertatu aal zan ez nekialako demonino orren aurrean.

Amaren jarduna ia aaztuta neukan, urtean zear gauza ugari gertatzen diralako artz txiki baten bizitzan.

Gorputzez ez naz oraindino amaren bestekoa, baina gutxi falta jat. Udagoienean jaki ugari bildu genduzan lo egin bearreko lekuan eta negu osoa lo igaro ostean. bizitza barri bateri asiera emon gurean koba zulotik urten Qenduan, ama eta biok andik gutxira, zer gertatuko jakun pentsatu be egin barik.

Pozik gengoan, Udabarria zeozer aurreratu zalako, eta beste urte batzuk baino oparagoa zalako janaria, erleak etengabe ebizan ezta eginaz eta gu bien bitartean pozik ezta jaten.

Landa batetik bestera pasatzeko, muino batetik igaro bear ginen. Tontorrean ezin zan geratu, gu maite ez gaituen begiak ikusteko arriskua egoalako, zoritxarrez ez egoan beste biderik.

Alako baten inoiz entzun gabeko animan batzuen otsak entzun nebazan eta orregaz batera, inoiz jaso ez neban usain bat nagusitu zan nire inguruan.

Amak orduan: –Korri laztana, txakur ausiak datoz aitz orren atzetik eta gizakiak ez dira urrun ibiliko, arrisku bizian gagoz.

Esan eta danba!, leenengokoz entzun neban gortzerainoko zarata jasan ezina gailendu zan gu gengoan lekuan, ama odol putsu baten erdian egoala, bere azken atsa jaurti eban. Egoera estu aren erdian arrapaladeari emon neutson.

Nire ankek abiada izugarria artu eben eta andik gutxira maldan beera desagertu nintzan, atzera begiratzeko asti barik.

Gelditu orduko, nitaz nagusitu zan dardara. Berealako baten konortea galdu eta lur otza laztandu neban.

AFRIKA 6: ABERE ERRIKIOIAK

Basa-piztiak ondoen ikusteko onena berebillean parke batera joatea da.

Krüger'eko parkea da ezagunena: España'ko lau erki- ren bestekoa da eta piztiak aske dabiltz, ikusleak ibiltzen dira espetxeratuta lez curen barebil sendotueta.

Arriskurik ez eukiteko, geldiro ibilli bear da. Eta berebilletik ez urten ezergaitik.

Elefantea edo jirafea berebillari begira gelditzen ba'da, klaxona jo bein eta barriro, gero biurgune baten leoi-pare bat aurkituko dozu jolasean.

Afrika'ko abere-mota guztiak ikusiko dozuz bertan: Jirafak curen sei metroko sama luzeagaz, zaldi txiki- antzeko zebra nabarrak leoiaren bildurrez, piztirik ederrenak diran leoiak moltzoetan dabiltz. Azalaria da leoi- urrintzen dauan bakarra, ats aundia botaten daualako.

Eta pizti geiago be ikusiko dozuz: riñozeronte izugari- niak, elefanteak... eta au diñon txartela aurkituko dozu: "Kontuz elefanteakaz" edo "ostatura bidea".

"Nabajoen izkuntzan artzari *.zutik ibilt,,en cieno* esaten jako. Gizakia il eta gero artz biurtzen da, nabajo tribuaren sineskeran. Onegaz batera, lur onetan dagozanean irakatsi batzuk jasoten dabez artzarengandik, orregaitik inoiz bear daben baino geiago eizatzen badabe artzarentzako izan oi zan. Gizakia il ostean artz biurtzen da, betiko bizit- zarako bidea prestatuz. Artzaren itxuraz abiatuko da gizakia betiko bizitzara."

Egunkarrietan oraintsu berri txar au irakurri geinkean. "Eiztari batzuk Euskalerriko azken artza akatu dabe tiroz Biarnotik Zuberoara doan mendi tarte batean. Aetz emea ilik dago eta urte t'erdiko artz kumeak ies egitea lortu dau. Gai onetaz jakintsuak direnak, aurtengo negua ez dauela igaroko artz gazteak bere amaren babes barik dinaure.

Desagertu jaku beste pertsonaia interesgarri bat Erron- kariko basoetatik.

Apurka apurka galtzen goazena berreskuratu ezina da eta ez dogu orretaz oartu gura. Lurralde oneetan euskera- ren oiartzuna galdu zan, bizirik dirau euskal espirituak alatan ere. Artza be galdu da, ia bere spirituak bizirik dirauen.

Zer ikasi asko daukogu, sarritan aintzat artzen ez doguzan kultura zaarretatik, aurrerako aipatutako naba- joak dira orren lekuko.

Gizakia dagoela danaren gainetik uste izateak, kon- pondu ezinezko ondamendia dakar gure artera. Oar gait- zan orretaz, berandu izan orduko.

LEGARRETA'tar ASIER

AFRIKA 7: JOHANESBURGO

Afrika'n beti aurkitu dabe urrea, andik dator munduko urrerik erdia eta orain gizaldi bat aurkitu zan Joannesbur- go'n.

Uri au Ego-Afrika'n aundi- na da eta urre-meategi baten gallean dago: Kalea gaiñean, galeria azpian. Ingu- ruan urrea emondako lur-pilloak dagoz ugari mendi- antzera.

Langilleak afrikatarrak dira, bizi-modu gogorra dauke urte batzutan, baifia diru asko aurreratzen dabe, urten ezin dabelako. Gero curen errietan luna eta abereak erosten dabez bizi izateko.

"Jo'burg" eurak esaten daben lez, zelai agorrean sortu zan, baiña orain zugatz aundiak egiten dautsoe gerizpea kale nagusietan, parkeak ugari dagoz eta etxeak loraz beterik, salerosketa-leku dotoreak, ibiltoki onak, museoa, liburutegiak... Biztanleak beti ariñeketan dabiltzala diru- di.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

FILOSOFIA

EUROPA'REN IZENA

Oraintsu egin do-u Europa alkartearen oiñarria izango dan lege nagusiari buruz auteskundea.

Euskaldunok beti izan -ara Europa-zaleak eta Europa'k e; daroaz gure "gene"ak eta gure izkuntzaren ondakiñak, kromagnon gizona arantza joan zalako eizaketa e-iteko emen izotz-aldia amaitu zanean.

Baiña guk Errien Europa nai dogu, ez laterriena, gaur egin nai daben lez.

Dana dala, gaurko idaz-lan onetan "Europa" itzak zer esan nai dauan eta nondik datorren azalduko dogu.

Orati /Horazio laterazko olerkari nagusiak bere "oda" baten azaltzen dau leienda edo kondaira au.

"Europa" izenak "aurpegi-zabala" esan nai dan.

Gaurko Libano lurraldean e-ozan antziña Tiro eta Sidon uriak, erromatarren sasoiak baiño lenago. Andik sortu ebezan Kades edo "Cadiz" eta "Kartago" uriak. Andik etorri ziran feniziarrek, abedea, diru-txanponak egitea eta itxas-ontzigintza irakatsi euskuenak, eta cero Kartagotarrak. "Puni" deritxen gudetan erromatarrakaz

burruka -ogorrek egin bear izan ebezanak. Sidon uri aretan bizi zan errege baten alabear; ipiñi eutsen "Europa" izena, aurpegi-zabala zalako.

Europa neskatilla oso ederra zan eta Zeuz jainko nagusia matemindu zan beragaz. Artu-emonetan asteko Zeus aundia (Jupiter) zezen biurtu zan eta zezen ori Sidon urira Europa neskeari urreratu jakon. Alkar mosukatu eta gero Europa zezenaren bizkar-gaiñean jarri zan eta orrellan urreratu ziran Kreta izena eukan ugartera. Ori izan zan Europa'ren oztuketa edo "rpto de Europa".

Kreta'n seme-alabak izan ebezan, onein artean bat Minos eta Minos onegandik sortu zan gero Europa izena artuko eban erri-aldea. Orreri esaten jako minotarren eta kretatarren jakintza, "Cultura minoica o Cretense".

Europa andrea eta Zeus Jainko nagusia dira ba, gaurko Europa onen sortzailleak, kondaira edo leienda onek diñoan lez eta ori Erroma Romulo eta Remo'k jrasan baiño lenago.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

AFRIKA 8: SAFARIAK

Nork ez dau amets egin Afrika'ko basapiztieneizaketa? Amets ori beteteko tokirik egokiena Nairobi da, antxe batzen dira safari-egilleak ugari.

Erakus-leio edo eskaparateak zizpaz, argazkigailuz, kanpaiñetarako txabolaz, oiñetako egokiz, kapela zabalez beterik aurkituko dozuz eta kaleetan jeep-antzeko gurpildunak, ate ta leiobakoak, atzean eizatuak ekarteko burditxu bat dabela. Inguruko ostatuetan eta kafetegietan narru baltzeko jentea safarirako jantzita, baita safaritik etorri diranak be soiñeko zikin eta tximurtuz jantzita.

Urtero urtetan dabe Nairobi'tik milla ta berreun baiño geiago safarik. Eta safaria ezin dabenak baso baltzean iru eguneko ibillaldia egiten dabe.

Safariantzat kanpiñak be ba-dagoz antilopezko egozkaria jateko, kanpoan dauken mai baten.

Baiña gabaz moskitero edo eulizaingailuen barruan egin bear izaten dabe lo. Eta zure albora leoia etorten bada, ez ikaratu. Orrez gaiñera basapiztien ulu zorrotzak ugari entzungo dozuz.

AFRIKA 9: LUR-BARRUA

Afrika lur-barrua edo kontinentea da, munduko lur-barrurik arrotzena ta lilluragarriena, alde batzutan goibelena eta beste batzutan zoragarriena.

An sortu e; zan gizakia, baiña beste lur-barruak baiño gitxiago ezagutzen da Afrika.

Ezbardintasun aundiak ditu lurbarri onek: Erremurik aundiena ta legorrena, baso baltzik aberatsenak, mendi aundiak urte guztian edurrez zurituta.

Suez'eko urbidea ;de-; zanean, Afrika Ugarte biurtuta geratu zan (1869).

Bere zabaltasuna munduaren bostetik bat da eta iparretetik egora 8.000 km daukaz, sortadetik sartaldera, barriz, 7.500.


Bertan bakarrik dagoz beste mundu guzt;an baiña enda geiago: 220 milloj biztanle millaka leiñutan eta 700 m izkuntza.

Langintzarako ola barriak dagoz urietan baiña K.a.'ko oiturak ez dira galdu.

Iñon baiño abere ezbardin geiago daukez.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.

ERAKAR-INDARRA (ATRACCION)



Mundua ez dago orrean eutsita.

Aurreko idaz-lanean agertu dogun mundugintza ederrak ba daukaz gutzat ulertu-eziniñeko gauza batzuk.

Esaterako zelan dago gure ludi au aidean, jausi barik?

Antxiñakoak ezin eben ulertu ori eta gizandiak onartu ebezan: Grezia'tarrak Atlanteak zirala lurrari eusten eutsoenak esan eben, Txina'tarrak, oster, lau elefante eusle ipiñi ebezan, India'tarrak eta Japon'darrak eren-zuge sagaratu bat ipiñi eben lurraren azpian eusle.

Guiztiak uste eben lurra galleta baten antzekoa zala, zapala. Orregaitik eusten ain bildur aundia urriñeko itxasoari, an azkenean amildegi aundi bat egoala uste ebelako. Azkenean ausartuenak joan zirau itxas-ontzietan azkeneraiño, eta azkena asierea bera izan zan, lurra biribilla zala ulertu eben.

Su-ziri, txapliegu edo koeteetan gora bialdu diran argazkiñak argazkiak aterat dabez eta argi ikusten da lurraren biribildura ori eta beste iretargi eder baten antzekoa agertzen da gure lur urdin biribilla.

Ludiak ez dauka ganerik, ez azpirik, ez goirik eta ez berik, bira osoan goia antzekoa da eta gure azpian bizi diranak ez dira jausten, lurra erakarrita dagoz.

300 urte dira Galileo'k erakarpenaren zuzmoa artu ebalaz gauzak jausi egiten dirala ikusi ebalako eta ori agertzeko Pisa'ko torrearen gainetik bola biri itzi eusten jausten, marfillezkoa bata eta altzairuzkoa bestea. Inguruan egozanak ikusi eben biak jausten zirala baiña ez bardin. Ez euker erakar-endar edo "atracción" bardiña. Zergaitik ori?

Eun urte geroago Newton jakintsuak sagar garau bat landaratik jausten ikusi ebanean, jauste orren azalpena billatu eban. Sagarra bere pisugaitik, erakarrita, jausten zan lez, ez ete euker erakarpen bardiña euren artean izarrak eta izarbelak? Ortik eta Galileo'ren irakatsia aitzu barik aterat eban erakarpen-lega.

Lege ori geroago, XVII gizaldian osotu eban Kepler'ek eta gauza guztiak daukela izadian erakarpen-endar ori esan eban, iman baten antzera.

Erakarpen-endar au galtzeko su-ziriak edo koeteak lurretik urrindu egin bear dira eta lurrean 30 tone aztuna dana, 6 km. goraro 8 tonekoa da eta 40.000 km'ra ez dauka erakarpenik.

"Gorpuzki guztiak euren gai-sendotasunaren alde eta urrintasun-neurri lautuaren aurka alkar erakarten dabe"

Baiña lege ori baiño besterik ez ba'lego, iretargia lurrera eta lurra eguzkira jausiko litzakez. Beste indar bat dauke gorpuzkin guztiak, "zentrifugo" edo ardatzetik kanpora ateraten dauzana, au ibilliak dakar. Artu diagan eskuan kordel bat eta puntan bola bat eta birak emoten asi, bola orrek kan-

porantza indarra dauka. Ori da abaila edo ondearen oiñaria. Ibil-indar orrek eragiten dautse illargiari eta eta lurrari kanpoarantza, lurrera edo eguzkira ez jausteko.

Emen egindako sateliteak be toki orretara eltzen diranean, erakarpena eta igeseragilleak oreka, ekilibrioa daukean, antze geratzen dira biraka.

Jakituri aundia benetan mundugintza. Gu billatzen gabiltz!

Piztiak eta abereak baso beroetan: Elefantea

Afrika'ko jauna da elefantea eta bere etxean, beroaldiko basoetan ikusi bear dogu.

Pizti au begiko dogu. Igaro dan gizaldiko eiztari marfilzaleak olako narru-lodiak millaka ilten ebezan, baiña gaur obeto zainduta dagoz.

Elefantea gomutamen oneko piztia da eta egindako txarkeri areik oraindiño be aitzu barik daukoz eta orregaitik eun-bat urtekoa dan bere bizitza luzean zur eta erne ibiltzen da, beti taldeka, eta urte guztian egiten dauzan ibillaldiak janari mamintsuago ta aberatsagoaren billa egiten dauz. Izan be, janari gozo-zalea da.

Egunero 300-400 k. orri jaten dauz eta bidean

tirri-tarra doanean, auznar egiten joaten da. Ura be asko eta sarritan bear izaten dau eta ba-daki zelan aurkitu, bere beko-agiñakaz (kolmilloakaz) lurrean zuloa egiten dau bear-izan ezker.

Gorputza ureztatzen, buztiten, be zalea da, eta ur-arkak egiten ditu orretarako.

Belarriak zoliak eta susmoa zurra daukaz, baiña begiak dauz makalak.

Gatza bear izaten dau eta gaitx egiten jako ori aurkitzea. Orretarako, aurkitu dauzan inurritegietako buztiña jaten dau. Baiña or aurkitzen dau bere zori txarra. Eztariak aurkitzen dabez elefantearen azarrenak eta bere billa datozenean, elefanteak gauzarik arrigarrienak egiten dauz: Taldeko elefanteen bat zauritzen danean, besteak ez dabe iñoz be bakarrik izten, beste guztiak inguratuko dabe eta askotan iñok jarraitu ezin izango dauan ariñeketan eroango dabe.

Elefanteen atzazalak goma-antzeko gaia dauke, orregaitik ez da entzuten euren oiñotsik.

Elefante bakoitxak sei edo zazpi tone aragi dauz, neurri orretan bere betagin edo kolmilloak sartu barik. Betagin edo kolmillo bakoitxak 60 k. inguru pixatzen dauz.

Elefanteak lo zutunik egiten dau, etzundu ezker jagitea gatx egiten jakolako, baiña etzundu be egiten da. Jan-ostean bere lotalditxua egin bear izaten dau beti. Illuna urreratzen danean, ba-doaz zugazpetik eta alde egiten dabenean, basoa itxita geratzen dala dirudi

OLAZAR'tar MARTIN'ek



Elefantea marfillaren iturria.

EUSKADI'REN ASKATASUNA - ESPAÑA- EUROPA

Euskalerrria edo Euskadi'ren askatasunezko biribildua zabaldu eta bere argitasunezko dirdai guztian adierazteko, bere izaeraren bereiztasunetan xeekatu edo banakatu bear dogu. Jakiteko azken baten, askatasunagaitik daukagun ardura aundi au zergaitik dan.

LEIÑUAK: Euskaldunak, leiñuetan errotzen asi zira-netik, berez eta curen babeserako lurraldeetan batzango-tzen (globalizando) asi ziran.

Eta nai-ta oiturazko sinismen arloetan bardin antze-koak izan, ba-euken lurralde bakoitzaren mendizti (oro-grafia) gaitik bere bereiztasuna.

Euren antolamenduan. auzuneko batzarrak euki eba-zan. aukeratutako arduradunak lurraldeko batzar nagusie-tara bialtzeko.

Orrek esan nai-dau, Nortasunaren arloan oso ardura-dunak zirala, eta eginkizun orren ondorioan, askatasuna-ren babesle aundiak zirala.

Azken baten, odol, gorputzen bereiztasuna, sinismena, oitura, erlijioa eta abar, bardiñak izan-da, babeserako berak emon eutsozan berezko erriak izatea.

LEIÑUA'ren AURKA:

Europa 'n eta Mundu guztian, bardin gertatu zan, berezkotasunari jarraituz, berezko legeetan bizi ta oitura-tu egin ziralako.

Gero agertu ziran aundikerizko naiak. norkeriaren edo nor-geiagoko jokuaren bitartez sasi -jainkotasunean bizi al izateko.

Ortik aurrera, menperatzaille ta sasi-asmakuntzeko arauarekin, indar aundiakaz beti eureganatu egin dabez sasi-arrazoiak, erri-gizartearen antolamenduzko legeak menperatuta.

MENPETASUNA GAUR ARTE - EDESTI'tik ZEAR LORTU GUREAN:

Gure denboretako Bi-milla ta zazpiren urte dira asi ziranetik, sasi-jainkotasun amets ori lortu gurean.

Berezko erri-gizarteak, ekaiztsu aize orreri aurre egi-teko, euren babeserako eta antolamenduzko bearrak era-ginda. itzarmeneko buruzagiak aukeratu ebazan. Beti, erri ko batzarraren jabetasunezko menpean. Baiña asken

baten, kaizar eta katolikotasunaren guzurrezko sareetan jausi-ta, gure aukeratuak be, aundikerizko menperatzaille asmakizunetara jausi ziran.

Ortik aurrera, izen aundi askorekin ibili dira, menpe-razailletasunezko ekintz orreri sinismena emoteko: Kai-zartza, erregetasuna, Erroma'tarren katolikotasunezko kaizartza sakratua, Godo'ren ondoriotik datorren Tole-do'ko eleiz-batzar sakratuaren ametsean España ta late-riren larderiatsuagaitik, eta ainbat abar.

Zalaparta utsean joan dira oraiñarte egipidezko alegin guzti orreik, Europa eta Mundu onen erri-gizarteko edes-ti guztitik, danon ardurak esku gitxi batzuetan euki gura debezelako, eta berezko lege kanpotik eginda, izugarriz-ko zori-txarrak eragindituez. Gai onetan neurri zeatzak bear diralako, eginkizunezko gauzak ardurazko lotsean bakez iraun dagien.

1789'an FRANTZIA'ko IRAULTZA:

Kaizar-erregetzaren maldaberan, asmakizunezko en-ien agintaritzta aurrera eroateko, berezko erriaren zerbitzuan egon bear diranak eta ez norberekerien zer-bitzuan edo mirabetzan, beste aldaketa baten alegin gogor bat egin bear zala gogoratu ziran eta, Frantzia'ko errege frantzezen errege biurtu eben, berezko erriak ezereztuta.

Nortzuk izan ziran orreik....erria ta erritarren jabetza zuntziteko?

Argi dago, JAINKO-BAKO menperatzaillearen zaleak izan zirala, bestela zelan ulertu, berezkotasunaren legeen-jarraitzalleak zirala?

Asken baten. 1.929'an, nok eta Mussolini faziztak Batikano'ri be emon eutson Laterriaren izaera ta izena, berez askatasunaren egarritzko ziran erri ta erritarrak, Europá ren legez kanpoko Laterri guztien izaera barri zan legean sartzeko.

Andik ona, espataren indarragaz ibili dira Europá ko lur-nagusian, nai ezkerreko edo eskumakoak izan, laterri fazizta orreik legezta gurean, eta Españian ta Euskale-riren batez be.

Euskalerrria, 1.839, 1.841, 1.876. 1.936'ko gudakaz menperatu gura eben, Euskaldunak beti aurka egin da, Ludi onen lege orreitan ez dagolako lojikazko arrazoian egiaeren asmo-okerra baiño.

DAMUA:

Eginkizun orreik, beste borroka aundi batera croan ginduezan. Europa ta Mundu'ko gizarte guztia damu aundi bateko sumintasunean agertuta.

Eta damu orregaz, gizartearen eskubide guztiak babesu egin bear zirala aldarrikatu eben Mundu'ko jakintsu, agintari ta erritar guztiak.

Baiña damu ori, nai-ta fazizmoaren aurka izan, laterrietan ezarrita egon ziran faziztak (Franco adibidez), curen lekuetan itzi ebazan bakez, ostera be, erri-gizartean itxaropenak suntsituta.

Erabaki orren arrazoia, baleiteke arlo aundi baten beintzat. ekonomi edo diruen buruzpideko erreztasunagaitik izatea.

Baiña eginkizun orreik, Mundu onetako at7azoizko eta lojikazko lege-aurrean, diruaren jabetzagaitik menperatuta izten gaitu. Eta diru-jabetza orren bidez-mende egon ezkeru egiten direz, erri-gizarteetan egiten diran enderailketak (genocidios).

Laterri orreitan erri-gizartearen ardurak esku batzuetan erdiratuta egon ezkeru eta beste aberri batzuk sortarazita. edesti guztian gertatu dan antzera, aurretiko menperatzaile asmakizunean ezarrita ardura-gabean geratzen garalako.

Norenak izan bear cura ardurak?

Guztiok.... ez gara jaioten arduradunak izateko?

Mundu' ko gizarte oneri, okerreko mesedeak egiten dautsoez ardura gabean itxi ezkeru. Eurak, Mundu au xake-taula (tablero de ajedrez) baten antzera artuta jokatze.

Erri-gizarteak eta Laterrizko erri barri orreik, orregaitik agertzen diralako xautzailletasunezko-ardugabe aundi baten. Danak. berezko legearen aurrean, naastebateko noraezean gabiltzala.

ORDUAN..... ZELAKO DAMU DA AU? :

Ortxe dabizenen artean be, darnu orreri ez dakie zelan oratu edo aurre egin, diruaren mendekuak izan da. erabili bear dabezan arrazoizko legeak. Mundu onen herezko ta bereiztasunezko legeen aurka kokatzen diralako.

Bestela ikusi daiguzan. Espaiña'ko Laterri-zale jakintsu ta curen ustez agintari aundiak direnak zer esaten daben Lege-Biltzar ta Auzi-tegi aundietan:

PECES BARBA'k: Gaur 2.005'an Urtarrillá ren 31'n, eta Euskaldunari begira: "Euskaldunak, lenago erregeak egiten eben itzarneneko alkargoari begira dagozela" esan eban. Eta ori Ibarretxe'k Euskal Lege-Biltzarrean agertu eta on-artu zan eskeintza da. Baiña gaurko erregeak, ez dirala len errege izan ziranen antzekoak be.

Peces Barba 'k. egia zer dan ondo daki. Baiña zergaitik ez dau esaten~zelako alkargoak ziran areik, eta.... Nork ta Noren jabetasunagaz egon ziran idatzita.... leenengo jauna'k eta gero erregeak sinatu dagiezan?

Bildur dira egia agertzen?

Argi dago erdira-zaleak ba-dakiela, or beste astuntasunezko arrazoi aundi bat dagoala. Baiña ez dabe esan gura, Mundu au bideratzeko daukien asrnakuntzazko aukerak ezereztu egiten diralako. Edo egia esaten bildur dirala, menperatzaileak haztarten dabezelako. Adibidez: Gaur Zapatero'ri sortzen jakona, amerikarrak Aznar'en laguntzagaz. lotsagarritu egin gura dauala eta haztartu, curen asmo-aginduetara ez dalako bideratzen.

JOSE BORREL'ek: Europa'ko Lege-Biltzarrean.

"Euren edestiari lotsarik erakusten edo lotsea artzen ez dautsoen Erriak, edesti-ori berriz egitera zigortuta dagozela" esan eban.

Nungo erriagaitik itz egiten dabil?

Laterri bat ez dalako Aberria: "Gizaki'en edo Gauzá ren egoera dalako, eta curen izaeran aldatu leikena, beste goragoko egokitasun bat lortzeko".

Nor da ora.. eskubidearen Nortasuna daukan Jabe-duna?

Berezko erri-gizarte zalantzarik gabe.

Orregaitik. Espaiña ko erdira-zaleak ez daukie iñungo arrazoirik Euskalerrria eta erdi-ugarte onen barnean dagozan beste erriak menderatzeko.

Zergaitik..... Berezko erri ta erritarai ez dautsee izten. bereztasunean egin bear diran itzarmeneko elkartasun onakaz bakerako bidea artzen'? Argi ikusten da or!! Bakea ez dala curen naia edo elburua.

Aitzaki orregaz. Ludi onetan dirua elburu dala eta bear dogun mozkiñaren kontrola eurak eukinda lendik datorren JAINKO-bako asmakerian jarraitzeko?

Mundu onetan zer egin gura dabe daukezan legeetatik kanpo ibili ezkeru? Gaur egun sortzen dan antzera, gaia zikindu eta gizabidea bizi ezin dan kutzapezko larritasun batera bideratu!!.

Or!! argi dago ARRA dagoela.

RAJOI'tar Mariano:

Rajoi'k esaten dau: Ibarretxe'k Espaiña'n bere eson-dapena aurkezteko ez daukala legezko arrazoirik.

Legea bakari-rik daukagula, curen erdirakoitasunezko iraspen barman aurkezten geranean.

Euskalerrriko Nortasunaren jabetza ukatu edo ezereztu egiten dalako, espaiñolak garela esanda.

Eta... Kadiz'eko jaurkintzan argi geratu zala. espaiñolak garela.

ERRIA

Ez!! ez dago guzur aundiagorik!! Kadiz'ko gorteetan ez zalako erabagi ezer. VII'n Fernando'k ezereztuta geratu ziralako.

1.808'an Uztaillá ren 26'an erregeak. Frantzi'tik agindu bat oiuzkatu eban. Kadiz'ko gorteetan egin ziranak ezereztuten. Eta Euskaldunak Fueroak bir-eskuratuta, erregeak 1.814'an Uztaillá ren 29'an zinpetu eta baieztu egin ebazalako.

Eta egiten dauan guzti ori, gudaloztearen keiñuagaz.

Onek ez daki, eurak 1.839-76'ko urtetan jalo orduko, gu millaka urte ariñoagoatik gabizela Euskalerriko Nortasunaren ardurazko askatasunak babesten, berezko ta bereiztasunezko etsaiaren aurka.

ZAPATERO:

Onek, Rajoi'k esaten dauan bardiña esaten dau. nai-ta beste erabatera esan.

Erri-gizarteak. Ileenengo "Uritarrak" (ciudadanos) dirala esaten dau. eta izatean. demokrata erritargotasunaren aurretik. ainbeste astokerien artean. Nortasunezko legearen neurri ta arauak, naastuta.

Baleiteke.....oneik amaren zabelean demokratak egiten dirala.

Nora joan gure ete-dabe..... gogamenezko (concepto) antolamenduan edo antolamenduaren egipideetan, edozein lekutatik asita? Eta gaiñera, gogamen ori eraikitzeke, lekukoak ez diran zatiakaz eraiki gura ba-dabe?

Orregaitik orain ikusiko dogu Europa 'k zer eskatzen dauan bere kidetasuna osotzeko.

EUROPA:

Europa, aurrera begituta. itzarmeneko alkartearen egarrian agertzen da. ikusten daualako, bere barnean dauan gizartea babesteko, nai-ta nai-ez aurrerazko beste pauso demokratiko aundi bat emon bear dala, denboraren egokitasunakaz bat egin gura ba-dogu.

Gogamen ona eta aurrerakuntza aundia da, baiña orretarako XVIII'ko gizalditik datozen erdirakoiztasunezko menperatzaille laterrien loturak be lokabetu edo ezereztu egin bear dira. Eta or dago gaur daukun borroka aundia.

ZER DIÑO EUROPA ^k ARAZO ORREIK KONPONTZEKO?:

Europa'k badaki arazo orreik konpondu ezik, ardurabako Europa izango dala. Erdirakoiztasunaren eritzikoak edozein gauza egiteko gai dirala, eta nik esango neuke, artean. gizarteko klonaziokoaren aldekoak dirala, eurak daukien ametsak aurrera eroateko.

Bide ori ez da ona. eta eurak-he badakie, ardurabako bide orretatik aurrera egin ezkerro, gai'ezkoa dan Mundu onen ondamentia ikusten dabelako.

Orregaitik, Europa 'k esaten dauana, laterri bakoitzak bere eztaibadak konpondu daiazala, bere barnean egin bear diran egipideak erreztasun guztiaz egiteko, eta aurrerako emoten diran oinkadak guztiz egian oiñarrituta emoteko.

Europa'k, ago zabalagaz ez dau esaten emen esan dodana, erdira-zaleak egiten dabezan indarrezko estukuntza edo premiñagaitik, baiña egia da bere egarria dauala. Azken baten, gure harnean danak dakigulako arrazoia eta bide-egokia zein dan.

Europa'ri, arrazoia ta baietza orregaitik emon bear jako, iñora eroaten ez daben arrouskeriko-arrazoiakaz ibili barik.

Euskaldun guztiok, zeztasun ta zuurtasunezko ekin-tzan bideratu bear doguz gure borondateak Euskadi askatzeko. Eta ez sekula aaztu, Mundu onen agintariak, nai menperatzaille eta berezkotasunaren arrazoiaren bidetik dabizenak, erri-arteko goiko maillan dabizela. Eta laguntza edo baimena, oneik Euskal sinist-arazoan sartuta eta limurtuaz gureganatu egingo doguzala. Euskadiren askatasuna curen haimenezko laguntzagaz agertuko jakulako.

EUSKALERRIA'ren EKINTZA:

Euskalerraren edestia, milla urte azkokoa da eta egoe-ra larri au, len ainbat eukita, unetxo kaskar batekoa baiño ez da.

Eta ain txikerra izan-da be, garantzi aundikoa bera! euki dogun askatasunaren bide luzcan, Euskal-Nortasunaren zati aundiak itzi doguzelako.

Orregaitik, berriztu edo berrezkuratu egin bear doguz, bidean itzi doguzan Nortasunaren zati aundi orreik: Izaeran, izkuntzan, jaurkintzan, erri-laneko elkar-gintzan eta JAINKOA'ren sinismenean. Azken baten, benetazko ata] orreik borondate aundian eraikita daQozelako, Erria ^{aQ} osasun aundi baten dirdiratsu agertzen da.

Baiña ezer aundirik (nai-ta txikerra izan arren) ez da sortzen edo berrezkurutzen, alderdikierizko arroutskerian egiten danean, edo bai-ta azpian bonbak ipinten doguzenean. Aldebatetik, ganorabakokeri asko erakusten dogulako. Eta bestetik. Europa'n iñor ez dogulako sinist-arazian ezarriko orren eginkisunagaz.

Euskalerrian badaukaguz borondate aundiko emakume/gizonak. Jaurkintza be-bai.

Borondate onenean alkartu daiguzan indarrak ba!! menperatzaille asmakizunari aurre egiteko eta EUSKADI ASKATZEKO.

"Gaur, itxaropidezko egoera ori lortzeko, JAURKINTZAREN egorera sendotu bear dogu, eta ori esaten dotenean, daukagun JAURKINTZA'gaitik IBARRETXE-JAUNA buru dala berbetan nabil, aurrerapenezko emaitza ona, ETXERA ekarriko daualako".

ATUTXA'tar PAUL

ESKOLASTIKA GORENGO MVIAILLAN

Amairugarren gizaldia izan zan eskolastikoen filosofiaren gorengo maillea ikusi ebana, Averroes'en eskolan asi, Frantziskotarren eskola biakaz jarraitu, Oxford'eko Ikastetxe Nagusia be kontuan dala eta Txomindan-en edo dominikuen giroa oldutasunean dagoala.

Gero eskolastikearen bera-aldia asten da nominalismoagaz eta mistikuen bide okerrakaz.

ISLANDARRAK ETA JUDATARRAK

Eskolastikaren atean, Sem'darrak aurkitzen doguz aurrelari. batez be Abizena. Averroes eta Mamonides.

Musulmanak edo islandarrak, Maoma' ren itzaldiak entzun ebezanetik jakintza-arlo pseudo bat sortu eben, batez Andaluzia-aldean.

Abizena (980) osagille ospetsu bat izan zan eta asko idatzi eban lenengo osagille-arloan eta gero filosofi-arloan eta Platon'en bidea artu arren. alegin osoa egiten dau Aristoteles'en irakatsiak artzen. Burubide orokorren edo unibersalen arazoa aztertzen dau eta metafisika "ente" edo danaren jakituri lez artuta onen izatea zer dan itauntzen dau. Gauzak Jainkoagandik datoz iturritik ura lez (emanaziñoa) eta adimena da azkenengo etorri dan ura. Monismoa da ba Abizena'ren ulerbidea.

Andaluzia'ko arabeen artean Averroes (1126) dogu nagusi, beronek ezagutu ebalako lenengoz erdi-arloan Aristoteles eta beronen bidez eldu zan Akiñotarragana.

Averroes'ek asko idatzi eban. filosofi. teoloji, osagilletza. eskubide-arloa eta izar-iztia gai lez artuta. baiña gutzat garrantzizkoenak dira berak Aristoteles'en lanai egindako iru azalpenak. Nai dauana Aristoteles'en lanak garbitzea da barruan daroazan platonkeriak kenduta. baiña ez eban lortu emanatismoa eta Jainkoa bera gauzen iturri artzea, azken baten panteismoarako bidea: Jainkoak betikotasunean egin eban mundua eta orain ezin leike aldatu bere lana. Adimena munduan bakarra da, Jainkoagaz bat da gurea dogun adimena.

Judatan-en artean filosofo nagusia gure erdi-ugarte onetan Ben Gabirol edo Abizebron dogu (1020): Platonkeri barriaren barru-barruan dago: Mundua ez da besterik Jainkoagan diran burubideak izadira sartzea baiño.

Urrengoa Judatarren artean Maimonides (1135) dogu: Onek be danaren ostein Jainkoa bera ipinten dau, baiña mundua denporearen barruan egiña dala diño, ez betidanik. Emanatismoa da ba bere filosofia.

Arabiar eta Judatar dira jakitun aundi orrek oiñarrian dirala eta onein oiñarrian Platon eta Aristoteles dirala sor-

tzen da erdi-aroko filosofi nagusia. Eskolastika eta XIII gizaldian eldu dira irakasbide onen eskolak gorengo mailara.

Goi-mailla ori lortzeko laguntzak bi oneik izan ziran: Ikastetxe Nagusiak, lekaide eskaleak.

Jokera bi agiri dira argi: Bata Platon'egandik dator bidean Augustin deuna dauala, Bonabentura deunagana eta bestea Aristoteles'gandik Averroes bidean dala, Akiño'ko Tomas deunagana. Ez zan gauza erreza izan Aristoteles Erdi-arloan onartua izatea.

Asi gaitezcan Frantziskotarren edo Buenabentura deunaren eskolea azaltzen

Beste eritxi asko inguruan aurkitu arren frantziskotarrak Augustin deuna artu eben eredu lez eta noizean bein sartzen dabez inguruan bizi-bizi dagozen beste eritxi batzuk.

Buenaventura deuna (1221) Fidantza'ko Juan ize- nez, irakasle ospetsua izan zan baiña irakaskintza itzi eban ogeita amasei urtekoa zala bere ordenako nagusi izendatu ebelako. eta idazten jarraitu eban 1274n. urtean, Lion'ko Eleiz-Batzar Nagusian il arte, kardinal zala.

Irakasle laikoak fraille eskaleen aurka burruka egiten asi ziran, eta Buenabentura santua izan eben eskaleak aldeko.

Jainkoa ba-dagoala baieztatzeko zioen artean onartzen dau Antselmo deunaren argudio ospetsua.

Buruan jaiogabeko burubideak dagozala be onartzen dau. platonkeriaren bidean.

Bere metafisikan iru gai dira nagusi: mundugintza, mundua egiteko Jainkoagan dagozan ereduak eta munduaren azken-elburua.

Munduak ez dauka betikotasunik eta onetan gogor jokatzen dau Mundua betikoa dala diñoan Aristoteles'en eritxiaren aurka, Platon'eri jarraituz.

Mundua ezagutzeko bide bi ikusten dauz: zentzunak be-maillan eta adimena goi-maillarako, eta lenengo ezau-bidean Aristoteles'egaz dago eta bigarreanean Platon'egaz edo San Augustin'egaz.

Azalpen baragarriak daukaz edestia zatitzean eta Iru-tasun Santua eredu dala.

Frantziskotarrak, San Buenabentura'ren ondoren curen eskoleagaz janTaitzen dabe. eskola barri onen buru Juan Duns Eskoto dala.

Onek Oxford'en eta Canbridge'n eta Paris'en ikasi eban eta toki orreitan azaldu eban Pedro Lonbardo'ren

FILOSOFIA

Sententzi-Iiburua eta 1301n. urtean Paris'en daukagu irakasle. Baiña VIII Bonifazio Aita Santuaren alde agertu zalako, erbesteratu egin eben. Etxeratu eta laster 1307n. urtean il zan 43 urtekoa zala.

Irakasle zorrotza (subtilis) esaten jako Eskoto'ri, Andra Mari-zalea be bai Sorkunde garbiaren alde zio au agertu ebalako: "Potuit. decuit ergo fecit". Jainkoak al eban gauza zan sorkunde garbia, egitea ondo egoan gauzea zan, orduan egin eban.

Frantziskotarren bigarren eskola onek onartzen dau Aristoteles, lenengo eskoleak baiño askoz geiago, baiña ez tomastarren erara. naiago dabe Abizena'ren bidea. Edo Augustin deunarena. Orregaitik esaten da Eskoto'k asten dauala Eskolastika'ran beera bidea.

Ezagutzeko bidean. era bi daukaz Eskoto'k. intuiziñoarena ta kenketa edo abstrakziñoarena. Intuiziño ez dogu ezagutzen Jainkoa eta ez beste izakiak be, emen bide bakarra kenketa edo abstrakziñoa dogu. Ez dau onartzen Jainkoagana eltzekon Anselmo deunaren bidea.

Mundugintzarako platondarren ereduak onartzen dauz eta Jainkoak askatasunaz dakaz izakiak mundura eredu orreik artuta.

Eskoto'ren jarraitzaileak bide barri bat zabaldu eben, nominalisten edo Ockhan'en bidea.

Eskola aundi bi onen biartetan, eta Txomindarren eskolea aztertzeraz sartu baiño lenago, zerbait esan dagigun Oxford'eko eskoleari buruz. Anglandarren eskolea da au.

Ikastetxe Nagusi onen bide bereizi bat eukan asieratik. es Paris'koaren lakoa.

Irakasle oneik ez dabe onartzen Aristoteles'en bidea eta ez Platon'ena be, antxiñatik datorren eskolastika da curen bidea.

Roberto Grosseteste (1175) da irakasle nagusia: Ezagumen ziurrenak matematikarenak dira eta eurak dira izadia ulertzeko bide bakarra. Jainkoa da argi bakarra gauzak ulertzeko eta diran gauzak bere eredu egiketak dira.

Roger Bakon (1210) izan zan bere jarraitzailea, frantziskotarra. Paris'en izan zan irakasle baiña gotzaiñak kondenatu e^s in ebazan bere 219 tesisak eta iges egin bear izan eban. Ordenako nagusiak be kondenatu eta espetxeratu egin eban.

Berak bere aldetik bere denporako irakasle guztiak kondekatu ebazan, "txomindarren mutiko biakaz" (Tomas deuna ta Alberto deuna) asita.

Ezagutzea zentzunetatik asten da, baiña gero Jainkoak argitzen dau.

Baiña goazen Eskolastikaren goi-mailla dan Txomindarren eskolara eta emen aurkituko doguz lenengo ta bein Alberto Magno eta Akino'ko Tomas beronen ikaslea.

Alberto Magno giza-iztian Aristoteles'en jarraitzailea da. ^sri ma errazoiduna da gorputzaren forma bakarra. Eta ezagutzeko bidean be osoan onartzen dau Aristoteles'en kenketa edo abstrakziño-bidea. Baiña zalantzak agertzen

dauz Anselmo deunaren argumentua onartzeko. Metafisika'n platontasun barriaren bidea janaitzen dau.

Baiña Grezia'n Platon eta Aristoteles gallurra ziran lez bigarren gaillurra, Erdi-Aroan, San Buenabentura ta Akino'ko Santo Tomas dira.

Aztertu daigun Santo Tomas.

Akino'n jaio zan (1225): 1247n. urtean joan zan Paris'era Alberto Magno'ren ikasle izatera. Laster egin eben irakasle eta lan asko idatzi ebazan, Pedro Lonbar-do'ren Sententzi-liburuen azalpenagaz asita.

Ez eutsen baketan izten irakasle laikoak.

Bere burubideetan Aristoteles da garrantzi aundiko pentsalaria, baiña bera gorago doa, fedea eskatuta. San Augustin eta Platon be ez dauz osoan baztertzen. baiña ezagutzeko asierea zentzunak dira, jarraitzeko kenketa edo abstrakziñoa.

Filosofia zatitzeko bidea, izadiarena, buruarena, jokabideena dira. Ortik lau zati: burubideena. izadiaren. metafisikarena eta jokabideena.

Kenketa edo abstrakziñoa egikeran be iru mailla jarten dau, Beozio'ri jarraituz: Fisika, matematika eta metafisika.

Gure adimena aztertzen dau, baiña ez ezelan be adimendun gutiak dauken bakarra eta Jainkoagaz bat eginda.

Oso-osoan alboratzen dauz Platon'en idea-ereduak.

Jaikoagana eltzeko bost bideak azaltzen dauz eta ez dau onartzen Anselmo deunaren bidea. Iru elbide dira egillea bear izatea. binkaintasunaren maillak eta neurriak kentzea. Jainkoari gauza batzuk analojiz ezartzen jakoz, bizia esaterako, beste batzuk osteraz irudi lez baiño ez esatera aitzaz izatea.

Txarraren arloak be garrantzia dauko Akino'ko Tomas'en irakatsietan. kataroen aldi bizi zalako: Txarra ez da besterik onaren muga baiño. Au San Augustin'egandik artua dau.

Akiño'ko Tomas'ek areno asko izan ebazan, baiña bere irakatsiak, gauza barriak izanik, arin zabaldu ziran. XXII Juan Santuak kanonizatu egin eban (1323) eta or alboratu ziran areno guztiak

XIV gizaldian asi zan Eskolastikaren beerakadea. Avignon'go Aita Santuakaz eta Sartalde'ko zisma aregaz, eleiz-giroa bera ba galdu zalako.

Or agertu zan Durando txomindarra eta hatez be Ockhan nominalistea. Au laster artu eben aurrean bere denporan eta erbestera bialdu. baiña herau da fisofi barriaren asierea.

Filosofoen ostein mistikuak etorri ziran: Eckhart eta Ruysbroeck batez be.

Amaitu da eskolastikea baiña altxor aundi bat gertzen da errian ber-jaiotza sortzeko

~

OLAZAR'tar MARTIN'ek

URTEKO KONTUAK

SARRERAK 2004

Bazkideen sariak.....	4.779,00
Irakaskintzako eskuratzeak.....	2.925,00
Emaitzak.....	20.937,21
Beste sarrera batzuk moskiñak etabar.....	159,07
GUZTIRA.....	28.800,28

FORU ALDUNDIAK

(kulturarako).....	7.440,00
(ZER aldizkarirako).....	15.000,00
(WEB orriarako).....	10.825,00
BBK (Zer'en iragarkia).....	2.250,16
UDALAREN LAGUNTZA....	3.000,00 38.5 15,16

GUZTIRA.....67.315,44

URTEERAK 2004

Irakaskintza.....	4.140,00
Neskameari ordainduta.....	1.014,00
Euskal Astea.....	1.200,00
Ipuin sariketa.....	900,00
Uri-zerga ta SS. Bilbao, ura, zarama, argia, urrutizkiña, etxeko gastuak, sarigarriak uri-zerga, etabar.....	1.985,87
Etxeko alkartea + Derrama.....	9.722,40

GUZTIRA.....18.962,27

WEB ORRIAREN SARRERAK

Ordain-agiri onegaz batera doazen gai errosiak.....	1.734 €
Hostng'en eralketa emaxhosting. Com'en (Ordaintzaille Ana Uriarte agertzen da eta ordainketa VISA txartelaren bidez egiten dalako da ori, ez dago beste biderik). 6 illebete bakoitza 2004x8,95\$ = 53.70\$ 53,70\$ x 0,789 e bakoitza aldatzeko.....	42 €
DIRUTZEN BATZEA 5 urterako: 8,95\$ x 54 illebete = 483,30\$= 483,30\$ x 0,783 aldatzea.....	378 €
JAKINGARRIAK SARTZEKO EGITARAUA.....	2.450 €
ESKANEAKETA. OCR, 1RUDIAK SARTZEA.....	6.548 €
ZER ALDIZKARIAREN JAKINGARRIAK SARTZEA 148N ZENBAKITIK 301N'ERA (1991 TIK 2004'RA).....	5.673 €

GUZTIZ ERALKETAK.....16.825 €

ZER ALDIZKARIAREN URTEERAK

Irarkola'ko Frak. (Flash).....	11.264,88
Bidalgo'ko.....	2.505,10
Zuzendaritza.....	2.750,00
Kobratzaillea'ri emonda.....	375,00
Idazlea'ren alogerea.....	3.600,00
Etiketak bidaiak etabar.....	759,54
Izalbe (estalkiak aldizkarirako).....	914,89
Arriola'ri ordainduta.....	756,61

GUZTIRA.....22.926,61

KARMELE K

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

BBK

EUSKERAZALEAN

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²